


BADIRA ZAKILA DUTEN NESKAK ETA BULBA DUTEN MUTILAK

Diren bezala onartzea eta maitatzea da behar dutena



www.naizen.eus
info@naizen.eus
688 728 055

ARRETA ZERBITZUA

Informazioa, aholkularitza sexologikoa eta arreta familiarik familiara.

ELKARGUNEA ETA INFORMAZIO PUNTUA TRANSEXUALITATE EGOERAN DAUDEN FAMILIENTZAKO

Hileko lehen asteartean, 19:00-21:00

Donostia, Bilbo eta Iruñea

Informazio gehiago: naizen.eus

Haurren transexualitatea. ULERTZEAREN ETA LAGUNTZEAREN GARRANTZIA

Sexu-identitatea neska edo mutila izatearen kontzientzia da. Ez dago ez genitaletan, ez kromosomeetan, ez hormonetan. Norbait neska edo mutila da, badakielako hala dela.

Kasu gehienetan mutilek zakila dute eta neskek bulba. Horregatik, jaiotzean genitalei begiratzan zaie jaioberriaren sexua zein izango den jakiteko. Baina horretaz ziur egon gaitzeko bakar-bakarrik, singularrako lehen pertsonan norbaitek baieztatzen badu "ni mutila naiz" edo "ni neska naiz". Hori gerta daiteke hizkuntzaz jabetzerakoan, bi urtetik aurrera, edo bere bizitzako beste edozein unetan.

Batzuetan, mutil bat zela uste genuena (zakila zuelako), neska bat da (hala dela adierazten duelako). Eta alderantziz. Zakila duten neskek dira eta bulba duten mutilak. Bere gorputza eta burua ez daude oker. Horrelakoak dira.

Bularra laua, aurpegiko ile ugari edo XY kromosomak dituzten emakumeak dauden bezala, ahots zorrotza edo bular handiak dituzten gizonak ere badaude. Izan ere, guztiok ditugu, neurri desberdinetan, ezaugarri maskulinoak eta ezaugarri femeninoak; guztiok gara aniztasun sexualaren parte.

Transexualitatea ez da gaixotasun bat, ezta nahas-mendu bat ere. Ez eta erabaki edo aukera bat. Giza aniztasunaren beste gertaera bat da. Ikerketa berrienek % 1,2ko¹ prebalentziaz hitz egiten dute.

Egoera horretan dagoen haur edo nerabe batek, gainerakoek bezala, behar duena da bere ingurunea gai izatea bera entzun, onartu eta den bezala maitatzeko.

Gaur egungo ikerketetako datuek agerian utzi dute beraien identitatea laguntzearen eta ukatzearen artean dagoen amildegizuzgarria:

- Haurtzarora bere nortasuna ukatu zitzaizkion pertsona heldu transexualen artean, suizidio-ahaleginen tasa % 41² da (biztanleria orokorraren artean, % 1,6koa da).
- Bere nortasuna errespetatu eta lagundu zaien haur eta gazte transexualen bizi-kalitate eta zorientasunaren adierazleak adin bereko gainerako biztanleen antzekoak dira.^{3,4}
- Igarotze-prozesua egiteak modu positiboan eragiten dio bere osasun mentalari, eta dituen familia eta gizarte-harremanei ere bai.⁵

Ez dugu nahi gure seme-alabek haurtzarora galdu dezaten. Ez dugu beraien etorkizunean suizidioaren itzalik nahi.

Garatzeko aukera izan dezaten nahi dugu, jolasteko, ikasteko eta hazteko aukera izan dezaten. Irribarre egin dezatela. Beraien izatea ahalik eta gehien adierazi dezaten nahi dugu. Bizi daitezela. Izan daitezela.

Horretarako, gure seme-alabei babesa ematea erabaki dugu. Eta hezkuntza-komunitateak, osasunerbitzuek eta gizarte-ingurune osoak abentura honetan lagundu gaitzan beharko dugu.

Gure seme-alaben zoriona eta bizitza daude jokoan.

¹ "Epidemiological considerations in transgender health: A systematic review with focus on higher quality data", Zhang et al., 2020.
² "Injustice at Every Turn. A Report of the National Transgender Discrimination Survey", Grant et al., 2011
³ "Mental Health of Transgender Children Who Are Supported in Their Identities", Olson et al. 2016
⁴ "Young Adult Psychological Outcome After Puberty Suppression and Gender Reassignment", Vries et al., 2014
⁵ "La importancia del tránsito en el desarrollo psicosocial de menores transexuales", Martxeta et al. 2020.